

AMURRIOKO UDALEKO LANGILEEK ELKARRETARATZEA EGIN DUTE ALKATEAK UKO EGIN DIOLAKO KOMITEAREKIN BILTZEARI ETA NEGOZIATZEARI

Gaur ostiraletako mobilizazioekin hasi dira, Komitea errespetatzea eskatzeko eta negoziatzeko eskubidea aldarrikatzeko, banakako negoziazioak kritikatzearekin batera. Eskaera nagusiak lanpostuen balorazioa dira, 30 urte baino gehiagotan egin ez dena, eta baita plantilla gaztetzeko aurre jubilazio pizgarriarako eskubidea berreskuratzea ere.

Martxoaren 11ko Udal langileen asanbladako mobilizazioak berretsi ondoren, eta Gobernu Taldeari negoziazioaren aktibazioa behin baino gehiagotan eskatu ostean, beste behin erantzunik jaso ez dutela aintzat hartuta, udal langileak mobilizazioen dinamikarekin hasi dira gaur, eta ostiralero 11:00etan kontzentratuko dira.

LAB, ELA eta ESAN sindikatuek osatutako Langileen Batzordeak Amurrioko Udalari eta bere alkateari exijitzen die langileen eremuari buruzko gaiak negoziatzeko udal-langileen ordezkariekin (Udalhitz hitzarmenean jasotako eskubidea da). Nabarmentzekoa da lanpostuen azken balorazioa duela 30 urte baino gehiago egin zela, eta Belaunaldien Erreleborako Plan Estrategikoa hasi egin gabe dagoela (hainbat lankide 40 urtez lan egin ondoren jubilatu dira, eta aurre-jubilazioagatiko konpentsazioa jasotzeko eskubidea kenduta, Udalhitz hitzarmenean aitortua dagoen arren).

Lanpostuen balorazioa Aiaraldeko erakunde publiko askotan egin da (Aiarako Kuadrilla, Laudioko Udala, Urduña, Artziniega...). Urgentziazko egin beharra da, udal-langileek betetzen dituzten eginkizunak modu justu eta ekitatiboan baloratuko lituzkeena, eta Gobernu Taldeak eta Alkateak hartzen dituzten erabaki arbitrarioak eta diskrezionalak saihestuko lituzkeena. Hau da, lanpostu batzuk bakarrik baloratzea, jokamolde horrekin udal-langileen artean ezinegona eta sumindura sortuta.

Aurre-jubilazioak sustatzeari eta belaunaldi berriak administrazio publikoan sartzeari dagokienez, Langileen Batzordeak aurkeztutako proposamenak blokeatu dituzte. Bitartean, Aldundi guztiek eta udal ezberdinek, plantillak gaztetzeko eta lan bizitzako azken etapan dauden langileei aurre jubilatzeko pizgarriak bermatzeko formulak negoziatu dituzte.

Batzordeak 2 urte baino gehiago daramatza gai horiek lantzen, Langileen Batzorde guztietan interpelazio etengabeak eginez, proposamenak mahai gainean jarriz, ezer aurreratu gabe. Era berean, oso larritzat jotzen du Gobernu Taldeak eta, bereziki, Alkateak (udal-langile guztien azken arduradun nagusia denak) sindikatu etako ordezkariak duten ordezkartza eta negoziatzeko duten eskubidea ukatzea. Hortaz, Langileen Batzordeak mobilizatzen jarraituko du.

AMURRIOKO UDALEKO KOMITEA

